


# ADIKZIOEN PREBENTZIOA

2023KO MEMORIA



Getxo  
*bizi ezazu*

# Aurkibidea

0. Prebentzio zerbitzuaren helburu orokorrak eta espezifikoak	3
1. Alderdi ekonomikoak	4
2. Prebentzioa hezkuntza esparruan	5
2.1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako esku hartzea	
2.2. Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta LHIIko esku hartzea	
3. Prebentzioaren inguruko tailerrak ikasgelan	9
3.1. "Sarean" tailerrak	
3.2. Droga-mendekotasuna prebenitzeko tailerrak	
3.3. "Arrisku alkohola" tailerrak	
3.4. "Arrisku drogak" tailerrak	
3.5. Apustuen eta online jokoen inguruko tailerrak	
4. Prebentzioa familia esparruan	13
4.1. Familia eskola	
4.2. "Seme-alabak" aldizkaria	
5. Prebentzioa komunitate esparruan	14
5.1. Testing programa	
5.2. Alkohol karpak	
5.3. Adikzioen tokiko plana	
5.4. Gizarte langileei formakuntza	
6. Instituzioen arteko eta diziplina anitzeko koordinazioa	16

# 0.

## PREBENTZIO ZERBITZUAREN HELURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK



**1.** Adikziozko jardunbideen aurkako babes faktoreak indartzea, bizitza estilo osasungarriak sustatuz eskolako esparruko hezkuntza prozesuan zehar, arriskuzko jarrerak murrizteko asmoz.

- Ikasleen artean sustatzea erabaki asertiboak hartzea bideratutako abileziak lortzea, esaterako, harreman sozialetako abileziak, pentsamendu kritikoak eta aisiaren, denbora librearen eta osasunaren inguruko jarrera positiboak.
- Era berean, sustatzea gaitasun pertsonal positiboak lortzea, norberaren kontzeptuari eta inpulsiotasunaren, emozioen eta balioen kontrolari buruzkoak.
- Adikzioen (substantzienak edo substantziarik gabekoak) eta haien eraginen inguruan hausnartzeko eta kontrastatzeko gune bat eskeintzea ikasleei, ikastetxearen esparruan bertan.

**2.** Sustatzea gurasoek prestakuntza egokia jaso dezaten osasunaren inguruko beren gaitasun pertsonalak eta balio positiboak garatzeko, errazteko beren seme-alabak hezi ditzaten bizitza estilo osasuntsuei jarraikiz, adikzio jardunbideen kudeaketari dagokionez.

- Gurasoak sentsibilizatzea beraien prebentziozko eta hezkuntzako eragile gisa duten zereginaren inguruan, Familia Eskola programan parte hartu dezaten sustatuz.
- Programa bat diseinatzea eta abiaraztea, aukera emango diona prestakuntza lortzeko beren hezitzaile lanak modu egokian egiteko, Familia Eskola antolatuz eta garatuz.
- Argitalpen bat diseinatzea, sortzea eta zabaltzea, Familia Eskolaren alderdiak osatuko dituen, eta ezagutaraziko dituen udalerririk ematen dituen baliabide sozialak eta hezkuntzakoak.

**3.** Komunitate esparruko esku hartzeak areagotzea eta dibertsifikatzea, horiek moldatuz hartzaile kolektibo bakoitzera (herritarrak orokorrean, hezkuntzako kolektiboa eta abar) eta jarduketa esparru bakoitzera (orokorra, hautazkoa eta abar).

- Legez kanpoko substantziak testatu eta aztertu nahi dituzten kontsumitzaile potentzialek horretarako espazio bat izatea.
- Hezkuntza kolektiboak gune bat izatea, prestakuntzako eta hausnarketako, emozioen kudeaketa lantzeko garrantziaren inguruan sentsibilizatzeke.
- Alkoholen kontsumoarekin eta aisialdian eta jai-giroan adikzioak sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideekin lotutako arriskuak arintzea.

# 1. ALDERDI EKONOMIKOAK

Adikzioen Prebentzio Zerbitzua Getxoko Udalaren aurrekontu arruntaren bidez finantzatzen da. Aurrekontu hori **154.650 eurokoa izan da 2.023ko ekitaldian.**

Eusko Jaurlaritzak, dirulaguntzen programaren bidez, zenbateko horren ehuneko bat jasotzen du.

Eusko Jaurlaritzak **PROGRAMETARAKO** emandako diru-laguntzak

DIRULAGUNTZAK	2019	2020	2021	2022	2023
ESKATUTAKOAK	29.625	21.514	25.019	47.268	<b>47.504</b>
EMANDAKOAK	15.702	15.490	15.512	17.017	<b>17.102</b>
EMANDAKO %	53	71,99	62	36	<b>36</b>

Eusko Jaurlaritzak **TALDE TEKNIKORAKO** emandako diru-laguntzak

DIRULAGUNTZAK	2019	2020	2021	2022	2023
ESKATUTAKOAK	118.582	80.899	108.128	<b>59.810</b>	<b>52.328</b>
EMANDAKOAK	47.651	47.031	65.112	<b>44.074</b>	<b>32.623</b>
EMANDAKO %	40	58,13	60,12	<b>74</b>	<b>62</b>

## 2. PREBENTZIOA HEZKUNTZA ESPARRUAN

1998tik Etorkintza Elkargoarekin lan egin da, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei emandako aholkularitza eta laguntza zerbitzuak optimizatzeko, osasunerako eta adikzioen prebentziorako programak diseinatu eta garatu ditzaten.

Memoria honek hezkuntzaren esparruan 2022-2023an egindako esku hartzeari buruzko datuak biltzen ditu gehienbat, eta gai batzuen inguruan 2023-2024ko ikasturteari buruzko informazioa aurreratzen du.

Proiektua hezurmamitzen da aholkularitza teknikoan; material didaktikoa diseinatzean, egokitzean, sortzean eta banatzean; eta ikasleak prestatzean.

Esku-hartzeak laneko bi ardatz ezberdintzen ditu: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapa (4 urtetik 12 urtera), eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoaren etapa (12 urtetik 16 urtera), bakoitzaren bilakaera prozesuen araberakoak.

<b>6.370</b>	<b>16</b>	<b>306</b>
IKASLE	IKASTETXE	IKASGELA





## 2.1. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEA

2022-2023 ikasturtean ikastetxe guztietan (13) egin da esku hartzea, hau da, **187 ikasgela**tan, Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, dosierren bidez, irakasleen aholkularitzaren bidez, sare sozialen tailerren bidez, ipuin-kontalarien bidez eta abarren bidez.

Ikasleei dagokienez, azken ikasturte honetan, **3.648 ikasle**ekin lan egin da. Horietatik, 2.651 Lehen Hezkuntzakoak dira, eta 997 Haur Hezkuntzakoak. Parte hartze hori irakasleen inplikazioaren ondorioz gertatu da batik bat, emozioen eta balioen hezkuntzan lan egiten dutelako ikasgeletan. Horrez gain, zenbait gaitasun pertsonal positibo bereganatu dituzte, adikzioekin zerikusia duten arrisku-portaerak mugatzeko helburuarekin.

Etaparen honetan, programaren garapena eta bilakaera oso positiboak dira, eta kopurua eskolako erroldaren aldakortasunaren mende dago soilik.

<b>3.648</b> IKASLE	<b>13</b> IKASTETXE	<b>187</b> IKASGELA
------------------------	------------------------	------------------------



## LAGUNTZA BALIABIDEAK

### AHOLKULARITZA

Sentsibilizatzeko, planifikatzeko eta jarraipena egiteko bilerak dira, ikastetxe bakoitzeko erreferentziako pertsonekin egiten direnak. Haien helburua da abiapuntua aztertzea, ikasturterako aurreikusitako esku hartzea diseinatzea eta Adikzio Unitateak eskainitako baliabideak aurkeztea.

2022-2023 ikasturtean **aurrez aurreko 42 koordinazio** egin dira ikastetxeetako arduradunekin, eta horietan **27 pertsonak** hartu dute parte. Nabarmentzekoa da aurrez aurrekoak ez diren koordinazioak (Whatsapp bidez, mezu elektronikoen bidez edo telefono bidez) geroz eta ohikoagoak direla eta ez direla zenbatzen.

### “NI NEU, ZU ZEU” IPUIN-KONTALARIA

Ipuinen ahozko narrazioa da, eta horren bitartez asertibitate lantzen da, adikzioak prebenitzeko baliabide gisa.

Ipuin hauetan banaka erabakitze garrantzia lantzen da, denok desberdinak garela eta gure izate hutsagatik baliotsuak garela ulertuz. Besteengan eta geure buruarengan daukagun eragina. Elkar errespetatu behar dugula eta nor bere burua errespetarazi behar duela ulertzeko ipuinak.

Guztira, **20 saio** egin dira Getxoko **13 ikastetxe**tako Lehen Hezkuntzako 3. mailan, eta **438 ikasle**k hartu dute parte.

### “SENTIKTUZ PROGRAMA”

Sentiktuza komunitate mailako prebentzio unibertsalerako programa bat da, harreman afektibo-sexual osasuntsuak dituen ingurune batean ongizate integrala sustatzeko eta teknologia berriek ikasleengan duten eragina aztertzeko.

Helburu orokorrak:

- Mugikorrak, sare sozialak eta bideojokoak erabiltzeak izan ditzakeen arriskuak ezagutzea, eta aldi berean, horien erabilera osasungarriagoa eta kontzienteagoa sustatzea.
- Berdinen arteko harreman-esparru osasungarria erakustea eta tratu ona sustatzea.
- Elkarbizitza digital osasungarri eta positiboa sustatzea, errealitate desberdinetatik datozen pertsonen arteko kohesioa bermatuz.
- Esperientzia digitalean erregulazio emozional handiagoa sustatzea.

2022-2023 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako **13 ikastetxe**tan garatu da, 5. mailan nagusiki, eta **23 ikasgela**k parte hartu dute; **182 neska eta 210 mutil (392 parte-hartzaile)**.

### LAGUNEKIN BARATZEAN + TXOTXONGILOAK

“Lagunekin baratzean” programa osasun-hezkuntzako, substantzien erabilera desegokiaren prebentzio goiztiarreko eta balioetan hezteko edukiak laguntzeko diseinatutako programa da. Lehen hezkuntza-maila zuzenduta dago, 5 eta 8 urte bitarteko haurrei.

Material didaktikoa txotxongilo saio batekin osatzen da: Txotxongiloen bidez kultura aniztasuna, desberdinarekiko errespetua, gatazken konponketa eta taldeak sortutako presioa eta beste gai batzuk lantzen dira. Baratzeko pertsoniak kolore biziko barazkiak dira, euren arteko eta nagusien arteko zailtasunak erakusteko balio dutenak. Zailtasun horiek modu irudimentsu eta ludikoan konpontzeko baliabide baten aurrean gaude, haurrei tresnak modu autonomoan emanaz eta haien eta besteen arteko harremanei aurre egitea erraztuz.

Helburuak:

- Haurren heldutasun psiko-afektiboa lortzen laguntzea, eta baliabideak ematea autonomia pertsonal, afektibo eta emozional handiagoa lortzeko
- Dinarrizko osasun-ohiturak har daitezen sustatzea, norberaren gorputza ezagutzen eta balioesten lagunduz.
- Substantzien abusua prebenitzeko lanari ekitea, ondorengo etapetako taldearen presioari aurre egiteko gaitasunak har ditzaten lagunduz.

**2022-23 ikasturtean** Getxoko Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako **ikastetxe guztiak** parte hartu dute, beti bezala oso balorazio positiboarekin, eta guztira **1.009 pertsona** bertaratu dira.

## 2.2. BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO ESKU HARTZEA




Udalerriko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko guztiek parte hartzen dute adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko programetan, lan, konpromiso eta inplikazio maila ezberdinekin. Beraz, udalerriko bigarren hezkuntzako **8 ikastetxerekin** egiten da lan: 5 itunpeko, 2 publiko eta Lanbide Heziketako bat.

Ikasgelei dagokienez, 2022-2023 ikasturtean **119 ikasgela**tan egin da lan. Horietatik 78 Bigarren Hezkuntzakoak dira eta 41 Batxilergokoak edo Heziketa zikloetakoak.

Ikasleei dagokienez, ikasturte honetan **2.722 ikasle**ekin egin da lan, guztira. Horietako 1.810 Bigarren Hezkuntzakoak ziren, eta 912, Batxilergokoak edo Heziketa-zikloetakoak.

Etapa honetan ere oso positiboa izan da bai programaren garapena, bai haren bilakaera, eta kasu honetan parte hartzea eskolako eroldaren aldakortasunaren mende egon ez ezik, Batxilergoan eskainitako tailer berrien eta Fadura LHn hainbat programetan egindako parte hartzearen mende ere egon da.

**2.722** IKASLE      **8** IKASTETXE      **119** IKASGELA



### LAGUNTZA BALIABIDEAK

#### AHOLKULARITZA

Sentsibilizatzeko, planifikatzeko eta jarraipena egiteko bilerak dira, ikastetxe bakoitzeko erreferentziako pertsonekin egiten direnak. Haien helburua da abiapuntua aztertzea, ikasturterako aurreikusitako esku hartzea diseinatzea eta adikzio unitatetik eskainitako baliabideak aurkeztea, babes faktoreak indartzeko xedearekin, eskola esparruko hezkuntza prozesuan bizitza estilo osasungarriak sustatuz.

Ikasturte honetan aurrez aurreko **19 koordinazio** egin dira ikastetxeetako arduradunekin, eta horietan **14 pertsona**k hartu dute parte.

Nabarmentzekoa da aurrez aurrekoak ez diren koordinazioak (Whatsapp bidez, mezu elektronikoen bidez eta telefono bidez) geroz eta ohikoagoak direla eta ez direla zenbatzen.

#### “ADIKZIO AURRETIK”

##### (DBHko 3. eta 4. mailak, eta Batxilergoa)

Zinema programa bat da, adikzioen prebentzio unibertsalerakoa. “Adikzio aurretik” programan erabilitako material didaktikoen oinarria da hiru film labur motibatzaile ikustea ikasgelan, zinemari ikusteko hiru film luzeren hasiera gisa balio dutenak. “Frenatzeko arrazoiak” programarekin osatzen dira; hura osorik online egiten da.

2023-2024 ikasturteko programazioak honako hiru film labur hauek ditu ikasgelan ikusteko: “Un día en París”, “Arenal” eta “Cocodrilo”, eta zinemako hiru proiektzio hauek: “Aurora, nunca contento”, “La fuga” eta “Sweetheart”. Hainbat gai lantzen dira, hala nola autoaurkikuntza, lehen gizarte-harremanak, ikastetxea babes-faktore gisa eta autoezagutza eta onarpen egokiaren garapena.

“Locker room” film laburra **Frenatzeko arrazoiak** online programarako aukeratu dute. Bertan, sare sozialetan intimitaterako eskubidearen urraketa eta nerabearen egonkortasun emozionalean dituen ondorio negatiboak lantzen dira.

**787 ikasle**k eta **41 irakasle**k hartu dute parte

**828** PARTEHARTZAILE      **6** IKASTETXE      **41** IKASGELA




### 3. PREBENTZIOAREN INGURUKO TAILERRAK IKASGELAN

Egun, prebentzio tailerrek erantzuten diote irakaslea gai espezifikoetan ordez tuko duten teknikarien eskaera geroz eta handiagoari.

Horren ondorioz, aldaketa kualitatibo bat egon da komunitateko esku hartze tradizionalaren metodologian. Izan ere, lehen oinarritzen zen irakaslea pres-tatzean eta gaitzean, hura izan zedin jakintza eta jardunbide horiek helarazten zituena, hezkuntza errealitatea hobeto ezagutzen zuelako.

Horrenbestez, geroz eta esku hartze gehiago egiten dira ikasgelan, eta haien edukiek geroz eta dibertsitate handiagoa dute. Hain da hori horrela, ezen ho-nako modalitate hauek zerrendatu baitaitezke, beren kolektibo hartzaileare-kin:

- **Sare sozialen eta informazioaren eta ko-munikazioaren teknologien (IKT) erabilera egokiaren inguruko SAREAN tailerrak (LH 5/6.maila eta DBHko 1. maila).**
- **Droga-mendekotasuna prebenitzeko taile-rrak (DBHko 3. maila).**
- **“Arrisku alkohola” tailerrak (DBHko 4. maila).**
- **“Arrisku drogak” tailerrak (LHII).**
- **Apustuen eta online jokoen inguruko taile-rrak (DBHko 4. maila).**



# 3.1. SAREAN TAILERRAK



Egungo gizartean, eta bereziki nerabearoan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) zeregin determinatzaile hartu dute prestakuntzan, hezkuntzan eta berdinekin harremanak sortzeko moduan. IKTen erabilera osasungarri baterako hezteko, bereziki sare sozialena, tailer horiek planteatu dira, **LH 6.maila eta DBHko 1. mailako ikasleei zuzendutakoak**, baina salbuespen gisa beste maila batzuetan ere egiten dira, ikastetxeak hala eskatuz gero.

SAREAN tailerrak **grooming**-aren gaia jorraztera zuzenduta daude nagusiki (jazarpeneko delitu-modu bat da, haur edo nerabe batekin harremanetan jartzen den heldu bat inplikatzeko duena, pixkanaka konfiantza bereganatzeko eta gero sexu-jardueraren batean inplikatzeko) **ziberbullying**az gain (teknologia digitalen bidezko jazarpena edo larderia), eta azpimarratzen du zenbait jarrera zabaltzeak edo betiketzeak buller edo jazarle ere bihurtzen gaituela; eta, azkenik, **sextinga** (eduki sexuala, erotikoa edo pomografikoa duten argazkiak edo bideoak partekatzeak jarduerak) eta sextorsioa, mehatxuak edo xantaiak argazki edo bideo horiek erabiliz.

2022-2023 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 2 ikastetxetan egin dira honako tailerra:


IKASTETXEA	IKASGELAK	IKASLEAK	AMO(*)
LARRAÑAZUBI	1	16	9,07
ZUBILLETA	1	16	9,21
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>32</b>	<b>9,14</b>

Bigarren Hezkuntzako 6 ikastetxetan egin dira honako tailerrak:

IKASTETXEA	IKASGELAK	IKASLEAK	AMO(*)
AIXERROTA	6	124	9,32
AZKORRI	2	57	9,01
DIVINO PASTOR	1	17	8,58
NTRA. SRA. EUROPA	2	57	8,83
TRINITARIOS	1	22	9,22
SAN NIKOLAS	3	79	9,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>356</b>	<b>9,01</b>

\*AMO= ASEBETETZE MAILA OROKORRA

## IKTEI BURUZKO TAILERREN BILAKAERA:



## 3.2. DROGA-MENDEKOTASUNA PREBENITZEKO TAILERRAK

2022-2023 ikasturtean, droga-mendekotasunari buruzko informazio- eta prebentzio-tailerak egin dira ikasleentzat. Guztira **46 saio**ren bidez egin da esku hartzea, eta **458 parte-hartzaile** egon dira.

Tailerretan planteatu diren helburuak honako hauek izan dira:


- Eraginen eta arriskuen inguruko informazioa ematea ikuspegi objektibo eta ez moralizatzaile batetik.
- Gehiegizko kontsumoetatik eratorritako arriskuak murriztea.
- Kontsumoen, kontsumo motei, eraginei eta arriskuei buruz hausnartu araztea.
- Mitoak eta estereotipoak deskodetzen saiatzea.
- Drogen inguruko zalantzak eta kezkek argitzea.

IKASTETXEA	IKASGELAK	IKASLEAK	AMO (*)
AZKORRI	2	56	9,36
DIVINO PASTOR	1	24	9,04
EUROPA	2	53	9,07
CIFP FADURA	4	49	9,05
AIXERROTA	5	107	9,04
SAN NIKOLAS	3	64	9,42
TRINITARIAS	2	34	9,15
J.C. BAROJA	4	71	9,29
<b>GUZTIRA</b>	<b>23</b>	<b>458</b>	<b>9,23</b>

\*AMO= ASEBETETZE MAILA OROKORRA

Tailerrek irauten duten 2 orduei eutsiko zaie, ikastetxeek eskatuta. Ikasleen balorazioetan jasotakoaren arabera, tailerrak luzeagoak izatea gustatuko litzaieke, gaian gehiago sakondu ahal izateko.

### Droga-mendekotasuna prebenitzeko tailerren bilakaera Bigarren Hezkuntzan



### 3.3. “ALKOHOLAREN ARRISKUA” TAILERRAK

Gazteak alkohol kontsumoari lotutako istripuei dagokienez arrisku talde bat dira, beste faktore batzuek ere bat egiten dutelako: gauak, taldeko pre-sioak, beste droga batzuek, lokalen masifikazioak eta arriskuaren pertzepzio baxuak, adibidez. Tailerren helburua da kontzientzia sortzea kontsumoari lotutako arriskuen inguruan, kalteen eta arriskuen inguruko informazioa ematea eta norberaren zaintzako jardunbideak indartzea kontsumorik badago.

Hau izan da DBHko 4. mailan emandako “Arrisku alkohola” tailerren parte-hartzea:

IKASTETXEAK	IKASGELAK	IKASLEAK
AZKORRI	2	51
EUROPA	2	46
SAN NIKOLAS	3	75
DIVINO PASTOR	1	24
STMA. TRINIDAD	1	23
JULIO CARO BAROJA	4	68
IES AIXERROTA	7	111
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>	<b>398</b>

Parte hartzen duten ikastetxe guztiek oso positiboki balioetsi dute programa. Ikasleen ebaluazio inkesten arabera, interesgarritzat jotzen dituzte landutako gaiak eta erabilitako metodologia, baita irakasleek gaia garatzeko modua.

### 3.4. “ARRISKU DROGAK” TAILERRAK

“Arrisku drogak” tailerrak egin dira Fadurako erdi-mailako heziketa-zikloetako lehen mailetakoko kontsumorik gehieneko ikasgeletan.

Tailer horien helburua substantziak hartzerako orduan arriskuak murriztea eta kontsumo hori makinaren erabilerarekin lotzea izan da.

16 eta 43 urte bitarteko **92 gaztek** parte hartu dute **Fadurako ziklo ertainetako 7 gelatakoak**.

### 3.5. APUSTUEN ETA ONLINE JOKOEN INGURUKO TAILERRAK

Ausazko jokoan eta/edo kirol-apustuen eskaintza anitza, zabala eta irisgarria denez, erabat normalizatuta dago. Hala ere, informazio falta dago horrek dakartzan arriskuei buruz, hala nola adikzio baten garapen posibleari buruz eta pertsonaren eremu garrantzitsuen narriadurari buruz (fami-liakoa, lanekoa, aisialdikoa eta denbora librekoa, emozionala, etab.).


Aurreko guztia kontuan hartuta eta kontuan hartuta haurrek eta nerabeek mendekotasun-arazoei dute ahultasun berezia, lehentasunezkoa da ausazko jokoan eta apustuen eraginpean egotea prebenitzeko eta saihesteko neurriak hartzea.



Bi orduko tailer hauek psikologo batek ematen ditu erakundeko jokalariei ohi birgaitu batekin batera. 2022-23 ikasturtean, honako ikastetxe hauek tailerrak egin dituzte DBHko 4. mailan:

Tailerren bilakaera Bigarren Hezkuntzan

IKASTETXEA	IKASGELAK	IKASLEAK
DIVINO PASTOR	1	23
EUROPA	2	54
JULIO CARO BAROJA	4	81
AIXERROTA	7	138
AZKORRI	2	52
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>348</b>



## 4. PREBENTZIOA FAMILIA ESPARRUAN

### 4.1. FAMILIA ESKOLA

Familien Eskola programa (lehen Guraso Eskola izenekoa) 1994-1995 ikasturtetik garatzen da Getxo udalerrian.

2022-2023. urtean, **124 pertsona** hartu dute parte, 4 egoitzatan banatuta; Urgull, Gobelako kiroldegia, RKE eta Villamonteko kurtur etxea.

Hauek izan dira jorratutako gaiak:

- Nerabearoa, jarraibideen eskuliburua.
- Lehen irteerak eta lehen kontsumoak.
- Etxeko lanak eta buruko minak.
- Etxeko lanak adinaren arabera.
- Haurren beldurrak.
- Krisi-egoerei aurre eginez.
- Anai-arreben arteko harremana hobetzeko estrategiak
- Drogen prebentzioa.
- Zer egiten dute pantailen atzean?
- Ziberjazarpena: zer da eta nola prebenitu daiteke?
- Nola sustatu autonomia haur-etapan.
- Arratsalde osoa ematen du bideojokoetan jolasten.
- Ezin dute apusturik egin, baina apustuak egiten dituzte
- Pomoa ikusten harrapatu dut, eta orain zer?
- Irudiak nerabearoan duen garrantzia.

Gai horiek guztiak jorratu dira **32 saio**tan, eta udalerriko ikastetxe guztietako **124 familia**k eta haurren senideek hartu dute parte (112 emakume eta 12 gizon).

Gainera, **18 kontsulta pribatu**ri erantzun zaie, 12 prestakuntza-espazioaren barruan eta 6 posta elektronikoaren bidez.

Bestalde, prestakuntzetara joaten diren familiek prestakuntzetan landutako informazioa eskatzen zuten, eta, beraz, hainbat dokumentu egin dira, eta prestakuntzaren ondoren, parte hartzen duten familiei bidali zaizkie. Familien feedbacka oso ona izan da, eta oso positibotzat jotzen dute informazio argia eta praktikoa jaso ahal izatea.

### 4.2. SEME-ALABAK ALDIZKARIA

Seme-alabak argitalpenaren asmoa da osatzea Familia Eskolako prestakuntza jarduerak, gurasoak inguratuta beren seme-alaben inguruko hezkuntza gaiekin zerikusia duten prestakuntza alderdie-tara.

Argitalpena, Getxoberriekin batera aldizka argitaratzen dena, dibulgaziokoa da, eta urtean bi ale argitaratzen dira, eskola komunitateko une gakoekin bat (ikasturte hasiera eta urte hasiera).

Ale bakoitzak ohiko atalak ditu: Nire egunkaria, orientabideak, gomendatutako liburuak eta baliabide interesgarriak udalerrian, euskaraz eta gaztelaniaz.

2023. urtean honako hauek argitaratu dira:

- **50. zenbakia “ Bideojokuak, mundu paraleloa”**
- **51. zenbakia “ Irudiaren garrantzia nerabearoan**

# 5. PREBENTZIOA KOMUNITATE ESPARRUAN

## 5.1. TESTING PROGRAMA

Aisialdi-esparruetan esku hartzeko zerbitzu bat jarri da abian, legez kanpoko substantzien testatu eta analisisian eta informazio orokor zein pertsonalizatuan oinarrituta, kontsumitzaile izan daitezkeenei zein drogen erabilerarekin lotutako edozein alderditan interesa dutenei zuzenduta.

Substantzien aizuntzea, osasun-kontrolik ez izatearen ondorioz, legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako osasun-arrisku nagusietako bat da, eta erabiltzaileen kezka handienetako bat. Hori dela eta, hainbat hamarkadatan testamendu-programak zabaldu dira, arrisku horretaz ohartarazteko eta ahalik eta azkarren bereziki arriskutsuak diren aizunketak detektatzeko.

Programaren helburuak:

- Gazteen artean substantzien gehiegizko kontsumoa prebenitzea, eta informazio egiazkoa eta objektiboa ematea, drogen erabiltzaileei kontsumoaren ondoriozko arriskuak hobeto kudeatzeko aukera emateko.
- Programan parte hartzen duten pertsonak kontzientziatzea drogen kontsumoak dakartzan arriskuez, bai eta kontsumitzeko arrazoen, kontsumo horrekin lortu nahi diren helburuen eta substantziak erabiltzeko moduaren inguruan hausnartzera bultzatzea ere.
- Erabiltzaileari ohartaraztea ez dagoela legez kontrako substantzien osasun-kontrolik, eta ohartaraztea substantzia horiek aizundu egin direla.
- Drogen erabiltzaileen artean arriskuak murrizteko kontzeptuak zabaltzea. Gainera, drogen kontsumoari dagozkionak sexu-praktika seguruagoak dira, elikadura-ohiturak hobetzen dira eta estupefazianteak kontsumitzeak, edukitzeak eta trafikatzeko dakartzan legezko ondorioak ezagutzen dira.
- Substantzia eta kontsumo-eredu berriei buruzko informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa lortzea.

Testing bat egin da abuztuaren 12an Portu Zaharreko jaietan.

Guztira, **374 pertsona** jarri dira harremanetan, eta hainbat substantziaren **14 analisi** egin dira.




## 5.2. ALKOHOL KARPAK

Alkoholaren kontsumoarekin eta aisialdi eta jai-giroan adikzioak sortzeko arriskua dakarten gehiegizko jokabideekin lotutako arriskuak arintze aldera, informazio-karpa batzuk jarri dira Getxoko herriko jai batzuetan: paellak, Algortako jaiak, Erromoko jaiak, Portu Zaharreko jaiak eta Erromoko jaiak.

Bi figura profesionalek lagundu diete karpei, eta laguntza eta aholkularitza eman diete hurbildu diren pertsoneri. Alkohol-kontsumoaren faseei buruzko eranskailuak banatu dira, eta Eusko Jaurlaritzaren ZAINDU kanpainaren diptikoak eta informazio-erregletak banatu dira alkoholaren kontsumoak eta alkoholometroek dituzten ondorioei eta arriskuei buruz. Gainera, udaleko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuari buruzko informazio-diptiko bat ere banatu da.

Esku-hartzeak herritar guztiei zuzendu zaizkie, baina, bereziki, gazteei. Guztira, **1.008 pertsona** izan dira (543 emakume eta 465 gizon), eta batez besteko adina **26,8 urtekoa** izan da (18 moda).



## 5.3. ADIZKIOEN TOKIKO PLANA

Getxoko Adikzioen Tokiko Plana plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresna estrategiko gisa eratuko da, eta bertan jasoko dira prebentzio-arloan 2024-2027 aldian gauzatuko diren programak eta jarduerak. Prozesu honetan honako hauek egin dira:

1. Azken bost urteetan garatutako programak aztertu, baloratu eta berrikustea.
2. Lege, arau eta teoria-esparrua definitzea.
3. Mendekotasunek gaur egun udalerrian duten fenomenoari buruzko diagnostikoa.
4. Udal adikzioen planean garatu beharreko esku-hartzearen plangintza estrategiko eta operatiboaren proposamena.

Udal-eskumenen esparruan, Getxoko Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio-erakundea den aldetik, funtsezko zeregina du droga-mendetasunen eta portaera-adikzioen aurreko esku-hartzean. Toki Administrazioari prebentzioko, gizarteratzeko, eskaintza mugatzeko eta esku-hartzeak koordinatzeko eginkizunak esleitzen zaizkio, baina bereziki azpimarragarriak dira prebentzio-ekintzak, eta, zehazkiago, adingabeei eta gazteei eta biztanleriaren sektore ahulenei zuzendutakoak. Eskumen-esparru horretan sortu behar da Adikzioen Tokiko Plana, Adikzioen Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VIII. Planean (2023-2027) ezarritako lehentasunezko jardueraren ildoetara egokituko dena.

## 5.4. GIZARTE LANGILEEI FORMAKUNTZA

Getxoko Gizarte Zerbitzuetako langileek prestakuntza-pilula izateko egin duten eskaerari erantzunez, eta zerbitzua eta egiten diren programak ikusarazteko, substantziarik gabeko adikzioen prebentzioaren oinarriko alderdietan prestatzeko eta Getxoko errealitatea ezagutarazteko smartphone-en, sare sozialen eta jokoaren erabileran, Getxoko gizarte-langileei zuzendutako prestakuntza egin da, eta **15 profesional**ek parte hartu dute bertan.



## 6. INSTITUZIOEN ARTEKO ETA DIZIPLINA ANITZEKO KOORDINAZIOA

Instantzia eta/edo eragile erantzukideen arteko koordinazioa ezinbesteko tresna da prebentzio alorreko esku hartzeak modu efizientean eta efikaziaz kudeatzeko.

Getxoko Adikzioak Prebenitzeko unitateak koordinazio lan jariakorra du honako hauekin:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, erkidegoko taldeen jarraibideen arduraduna.
- Prebentzioko udal taldeak, kezkak partekatuz eta programen eta proiektuen esku hartze elementu koherenteak adostuz – Uribeko Sustapen eta Prebentzio Taldea.
- Osasun Saila eta Osakidetza, tabakismoa murrizteari, elikadura osasungarriari, ariketa fisikoari eta abarri dagokionez.
- Lehenak zerbitzua – Nahasmendu psikotikoko lehen gertakarietarako osasun mentaleko sarea.
- Hezkuntza Saila, ekimen guztiak aplikatzeko ikastetxe publiko eta pribatuen bitartez, in situ kontaktuaren bidez.
- Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak: Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntzako eta Gizarte-ko Esku Hartzea, etab.
- Hirugarren sektoreko entitate ugari eta prebentzio alorreko zerbitzuak eta baliabideak ematen dituzten enpresa ugari.

Hori dena adikzioen fenomenoaren konplexutasunari erantzunez eta erantzunkidetasun printzipioari jarraikiz egiten da